# BERRIGARA

0. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1994, azaroak 25



# Ebanjelizazio lanetan




8,5

U.T.B
5.000.000
pta.rako3
urtera

3 URTERAKO
BANTIZATUTA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# BERGARAKO OSASUN Gida

### ALBAITARIAK:
- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). .......... ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila. .......... ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. .......... ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 8 876 847 - Koldo Eleizalde, 28. .......... ☎ 76 27 97

### ANALISI KLINIKOAK:
- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. .......... ☎ 76 32 06

### BARNE MEDIKUNTZA:
- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. .......... ☎ 76 32 06

### DENTISTAK:
- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. .......... ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. .......... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. .......... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. .......... ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

### FISIOTERAPEUTAK:
- ARZAK Miren (Gorputz Jarreren Heziketa Orokorra) - Masterreka, 7 4.C. .......... ☎ 76 43 71

### HAGIN KLINIKA:
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. (Lehen Notaria zegoen tokian). .......... ☎ 76 05 77

### MASAILARIAK:
- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. .......... ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. .......... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. .......... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. .......... ☎ 76 51 18

### MEDIKUNTZA OROKORRA:
- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. .......... ☎ 76 37 50

### LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:
- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereoak) - Barrenkale, 16 1 .......... ☎ 76 18 81

### PEDAGOGOA:
- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagojikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. .......... ☎ 76 26 42

### PODOLOGOAK:
- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. .......... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. .......... ☎ 76 41 32

### PSIKIATRA:
- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. .......... ☎ 76 26 64

### PSIKOLOGOAK:
- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. .......... ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). .......... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). .......... ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). .......... ☎ 76 30 76

BERRIGARA

RROTALDE JAUREGIA
0570 Bergara
fnoa eta Faxa: 76 03 97

rgitaratzailea:
ARDUN Elkartea.
asterreka, 13 Bergara.
noa eta Faxa: 76 08 19
uzendaria:
orka Elorza
rredakzioa:
neko Azkarate
duardo Mendibil
ikel Elkoroberezibar
aketazioa:
neko Azkarate
duardo Mendibil
ublizitatea:
ex Azkarate
arpidetzak:
orka Elorza
estuen zuzenketak:
tepan Plazaola
aripi Laskurain
ex Labaien
rredakzio kontseilua:
guel Angel Elkoroberezibar
tepan Plazaola
ex Labaien
aki Eraña
omikiak:
ttor Rodriguez
orka Ortega & Jon Alvarez
se Martin Ezenarro
lian Ezenarro
ex Ugalde
anaketa:
antxangorri taldea

irada:
700 ale.
nprimategia:
rtu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
opyright:
ERRIGARA
ege gordailua:
3 50/91
SN:
30-6599

ERRIGARAk ez du bere gain
rtzen aldizkarian adierazitako
anen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura sailaren
laguntza jaso du

## Z E R B E R I D A ?

# ARANTXA ODRIOZOLA

## *Udaleko Gizarte Hezitzailea*



**- Zer egin da Oztopo arkitektonikoei buruz egindako ikerketarekin?**

- Estudio hori 92an egin genuen eta irtenbidea emateko zain gaude. Uda aurretik bilerak izan genituen Aspace, Jubilatu eta Elbarri Laneko ordezkariekin nondik hasi beharko ginatekeen ikusteko, gauzarik premiazkoenak aztertzeko. Udaleko aparejadoreari proiektu bat aurkeztu zaio eta datorren urteko aurrekontuan hori kontutan izateko eskatu dugu. Diputazioak ere laguntza ematea espero dugu.

**- Datorren urtean, lanean hasiko zarete...**

- 95ean lehen fasea egingo genuke eta hortik aurrera urtez-urte hobetzen joateko asmoa daukagu. Lehen aipatutako taldeekin bilerak izaten jarraituko dugu eta partikularren gomendioak ere jasoko ditugu. Prozesu osoa jarraitzekotan emaitza oso onak lortu ditzakegu hainbat gutxituk dituzten oztopo arkitektonikoak gainditzeko.

***"Gutxitu fisikoen oztopo arkitektonikoak ezabatzeko lanean dihardugu"***

## I T U R R I O N E T I K

## IU-EBk zerrenda aurkeztuko du Bergaran, Udal Hauteskundeetan

Izquierda Unida-Ezker Batua alderdiak maiatzeko Udal Hauteskundeetara zerrenda aurkeztuko du. (Bergaran Udal Hauteskundeetan aurkezten den lehen aldia). Azken Hauteskunde Autonomikoetan Bergaran lortutako emaitzen arabera (435 boto jaso zituen) zinegotzi bat lortzeko aukerak izango lituzke IUk. Datu horiek kontutan izanda 26 zinegotzi lortuko lituzke Gipuzkoan. Gainera, IUko ordezkarien ustetan, zinegotzi horrek zeresan haundia izan dezake Udal Gobernua osatzerako orduan. Hori kontutan izanik kandidatura osatuko dute eta zerrendaburua nor izango den urtarrila aldera jakingo da.

## E S A N D U T E

"Hemen zirkuitorik ez daukagunez, ezin dugu entrenatu. Madrileko eta Bartzelonako pilotoak, ostera, karrera eguna baino astebete lehenago dabiltza zirkuitoetan entrenatzen".

**MARTIN EGAÑA**
Auto gidaria
EUSKADI IRRATIA

●

"Karreretan oso giro ona izaten da, baina beti dago pilotoren bat, berarekin harremanik ez duzuna. Kolpe arrarorik? Azkenengo karreretan izaten dira, jendea numeroak egiten hasten denean, orduan gertatzen dira txokeak eta istiluak".

**IBAN RODRIGUEZ**
Auto gidaria
EUSKADI IRRATIA

●

"Burmuinean hizkuntzak barneratzeko daukagun mekanismoari esker askoz errezagoa da adin gaztetan hizkuntzak jaso eta barneratzea. Zenbat eta lehenago hasi ikasten, hobe"

**MARK J. STUTTER**
Irakaslea
ELGOIBARREN

●




BLOWN AWAY
(VOLAR POR LOS AIRES)
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



LOS PICAPIEDRA
Igandea: 11.30.




SEXO ORAL
Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Stephen Hopkins**ek zuzenduta, Boston hiria bonbaz josi duen irlandar maniako baten (**Tommy Lee Jones**) kasua azaltzen zaigu. Honen *antidotoa* irlandar jatorria duen *Gaerity* izeneko polizia (**Jeff Bridges**) izango da. Kontua da aurretik elkar ezagutzen zutela eta *Gaerity* kontu haundiz ibili beharko da bere emazte eta lagunminaren bizitzak arriskuan ez jartzeko.

▼▼ *Yabba dabba doo!* ohiuka hor datoz *troncomovilean Pedro* (**John Goodman**), Wilma (**Elizabeth Perkins**), *Pablo* (**Rick Moranis**) eta *Betty* (**Rosie O´Donell**). Marrazki bizidunetan oinarritutako filme honek izugarrizko arrakasta lortu du. **Briant Levant** zuzendari eta karakterizazio benetan ikusgarria.

▼▼ Bigarren aldiz iragarrita, hemen datorkigu **Chus Gutiérrez** zuzendariaren (*Sublet*) bigarren filma. Oraingo honetan, eta tituloarekin jokatuz, sexuari buruzko 60 bat testigantza eta galdera aurkezten dizkigu: Zer da sexoa? Zela izan zen aurreneko aldia? Zer da gehien atsegin zaizuna? edota zer eritzi daukazu infidelitateari buruz?

## Deiak

▼ **Jubilatuetan** asteazkenean 5etan, timoei buruzko hitzaldia. Bestalde, abenduaren 1ean Lizarrako San Andres feriara egun osoko irteera. Irteera goizeko 8.30etan izango da. Plaza mugatuak (2.6... pezeta, bazkaria barne).

▼ **Aisialdiko** Begirale Ikastaroa Beasainen. 887512 telefonoan.

▼ **Antzerkia.** *"Katuen testamentua"* haurrentzako antzerkia igandean Eibarko Ipurua Kiroldegian. Sarrerak JARDUNen salgai.

▼ **Bertsolari** gazteen saioa gaur 22.30etan Eibarko Orbea Frontoian.

▼ **Gestio Informatika** ikastaroa abendutik aurrera Sierbetan. Informazioa 67 40 05 telefonoan.

## Ogia

▼ **Igandea 27:** Bolintxo.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 25:** Puy/Irizar.
▼ **Larunbata 26:** Guallar/Amezua
▼ **Igandea 27:** Guallar/Ruiz.
▼ **Astelehena 28:** Estella/Morales
▼ **Asteartea 29:** Mozos/Azkoaga
▼ **Asteazkena 30:** Camacho/Esp...
▼ **Osteguna 1:** Puy.

Garnish
Bitxitegia
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

# Guatemala eta Kuba

## *Latinamerikako herrialde hauei buruzko solasaldi eta diapositiba emanaldiak antolatu ditu JARDUNek datorren asterako*

**JARDUNeko** Kultur Taldeak, beste herrialde batzuetako kulturak gu-regana hurbildu nahirik, bi ekitaldi iragarri ditu datorren asterako. Asteartean, azaroak 30, Imanol Larreak "Guatemala: Maiak: lehena eta oraina" izenburuko hitzaldia eskeiniko du Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan. Imanol Larrea 28 urteko albaitariak 2 urte t'erdi eman zituen Guatemalan "Veterinarios sin fronteras" proiektuaren bitartez. Bere hitzetan, *"mendian, indioei eta maiei zelan bakunatu eta animaliak zelan zaindu erakusten egon ginen eta granjak montatu ondoren, horiek zelan eraman ere erakutsi genien. Gaur egun hortik sortu zen elkarteak ikastaroak antolatzen ditu, bai birziklaia ikastaroak eta bai jende berriari zuzendutakoak".*



Imanol Larrea antzuolarra Guatemalan zehar ibili da bi urte t'erdiz bertakoei laguntza eskeintzen.

Hitzaldian Guatemalari buruzko ikuspegia eta bere esperientzia pertsonala azalduko ditu Imanolek; *"Maien historia, ze errekuperazio mugimendu diren, hizkuntza arazoak... eta gaur egungo egoera. Oraindik ere gerra dago bertan eta gerrila eta ejerzitoa negoziazioetan ari dira. Gaur egun bertako egoera oso txarra da".* Asteazkenean, berriz, ordu eta toki berean Juan Martin Elexpuru bergarar idazlearen "Kuba triste dago" liburuaren aurkezpena egingo da Juan Martin bera eta Xabier Mendiguren ELKAReko ordezkariaren eskutik. Juan Martin iazko uztailean izan zen Kuban eta esperientzia hari buruzko bidaia liburu bat idatzi du. Berak azaldu digunez, *"aspalditik neukan Kubara joateko gogoa. Leku erakargarria da, beste gauza batzuen artean bizi duen egoera politikoagatik. Tituloa? Kuba herri alaia da baina egungo zirkunstantziak direla eta, egoera tristea somatzen da. Jendea ere oso atsegina da baina harremanak ez dira errezak gauza guztien faltan daudelako. Liburuan bidaia kontatzeaz aparte, Kubari buruzko datu batzuk ematen dira eta hainbat gogoeta egin ditut".*

Solasaldiari paso eman aurretik, Aitor Iturriagak eta Alberto Iñurrietak Kubaren egoerari buruzko diapositiba emanaldia eskeiniko dute.


BOLSOS BERGARA, S.L.

✔ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
✔ Denetariko konfekzio industriala
✔ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz, 1 BERGARA Tfnoa: (943) 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66

PINTURAS BERGARA

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK• etab...

## Gezur baten historia

Bergarako Udaletxeko Herri Batasuna eta Eusko Alkartasuneko zinegotziek sinatutako gutun bat azaldu zen Berrigaran azaroaren 18ko alean.

Idatzi hartan, besteak beste, esaten dute: "Gobernu Batzordeak euskaldunoi funtsezko eskubide bat ukatuz, euskaldunok diskriminatuz eta udal agindu bat mesprezatuz ez du, azken aldi honetan, beharrezkoa den euskara gaitasuna kontutan hartu hainbat lanpostu betetzeko, bost guk dakigunez, Kirol eta Gizarte Ongizate Zerbitzuetan".

Tristea da, behin eta berriz, gauza berbera esan beharra: HB eta EAko zinegotziak ez direla "enteratzen" Administrazioak orokorrean eta kasu honetan Bergarako Udalak daraman funtzionamenduaz.

Gutunean adierazi edo eta salatzen dutena, Gobernu Batzordeak urriaren 24an hartutako erabaki bati lotuta dago. Erabaki hartan, Gizarte Ongizateko Zerbitzuak proposatutako erabaki bat aztertzen da, hau da eskulan ikastaroak emateko zerbitzua kontratatzea. Baloraziorako batzordearen proposamenari jarraituz (suposatuaz baseetan eskatutakoa betetzen zela), Gobernu Batzordeak erabakitzen du, aurkeztutako bi enpresen artean banatzea ikasteko orduak.

Ondoren, eta Euskara Teknikariak ohartarazita, gaia berriz mahai gainean jartzen da azaroaren 7ko bileran, bertan Euskara Batzordeak adierazpena egiten duen neurrian, monitore lanak bete beharko dituztenek bere eginkizuna euskaraz betetzeko gai izan beharko zutela adierazten bazen ere, hori egiaztatzeko frogarik egin ez denez, proposatzen da monitore lanak egingo dituzten pertsonak zeintzuk izango diren egiaztatu dadila eta horiek bere lana euskaraz betetzeko gai diren jakiteko froga egitea.

Hemen akats administratibo bat dagoela aitortu beharrean gaude, zeren eta monitore lanak egiteko aurkezten direnak enpresa bezala aurkezten dira; Gizarte Ongizateko Zerbitzuak egindako proposamenari jarraituz, egokia litzateke ondoren eskatzea zein izango litzatekeeen ikastaroa emango lukeen pertsona, eta berari euskara froga egitea. Hauek dira jarraitu beharreko pausoak, eta une honetan apurtzen da katea, horregatik esaten dugu akats administratibo bat dagoela.

Gobernu Batzordeko bilera honetan, partaide batek hitzez adierazitakoari jarraituz, beste zerbitzuetako monitoreak kontratatzeko -nahiz eta oinarrietan bere lana euskaraz betetzeko gai izan behar zirela jaso- euskera frogarik ez dela egin eta (akats administratiboa izan dela onartuaz) goian aipatutako urriaren 24an hartutako erabakia baieztatzen da, eta aurrerantzean, monitoreak kontratatzeko orduan eskatutako euskara maila duten egiaztatzeko frogak erabakia hartu aurretik egitea onartzen da.Hala eta guztiz ere, txosten bat eskatzen zaio Kirol Zerbitzuari, bertan argitu dezan kontratatutako monitoreen egoera zein den.

Udal Gobernu Batzordeak, azaroaren 14ko bileran gaia berraztertzen du; Kirol Zerbitzuaren txostena irakurri ondoren eta kontutan izanda 3 pertsonak 1991n euskara gaitasuna frogatu zutela eta GAI puntuaketa izan zutela; kontutan izanda 4. pertsonak euskara frogarik ez duela pasa, baina bere klaseak euskaraz ematen dituela, Gobernu Batzordearen erabakia hau izan zen: Kirol Zerbitzuko 4, eta Gizarte Ongizateko 3 monitoreei euskera froga egitea.

Bestalde, aipatutako gutunean zera esaten da:
"Honelako gauzak baimentzen dituenari, jakinaren gainean egiten baditu, hipokrita deitu beharko genioke eta, horrela ez balitz, txapuzero".

Beraz, goian aipatutako arrazoiak kontutan izanda, berriz diot, HB eta EAko zinegotziek ez dira "enteratzen" eta are gehiago, gutuna idazterako, Gobernu Batzordeak zuzendua zuen gaia; bestalde, gauza bat da egunkari edo errebista batean azaltzea edota salatzea gai bat, eta beste bat, gauza horrela bada, behar den tokian salatzea, hau da, erabakiaren kontra errekurtsoa sartzea: Kontutan izan behar dugu, Euskera Batzordean Herri Batasuneko zinegotziak adierazi zuela, agian, bere taldeak errekurritu egingo zuela erabakia. Non dago errekurtsoa? Hitzak bakarrik! Non dago hipokresia?

**KOLDO PEREIRA**
**EUSKERA BATZORDEBURUA**

## Graziarik gabeko "inkestak"

BERRIGARA astekariaren izenean dabilela esanez, azkenaldian, sexuari buruzko galderak egiten ari zaie telefonoz ezezagunen bat herriko hainbat emakumeri. BERRIGARAk argi eta garbi utzi nahi du ez duela horrelako inkestarik inoiz egin eta une honetan ere ez diharduela horrelako galdeketarik egiten.

Beraz, BERRIGARAren izena erabiliz emakumeei galderak egiten ari denari, behingoz utzi dezaiola eskatzen diogu. Aspaldiko kontua da eta ez du batere graziarik egiten. Halaber, emakumeei eskatuko genieke horrelako deiren bat jasotzen baldin badute, ez egiteko kasorik eta ez erantzuteko galderei.

Eskerrik asko.

**BERRIGARA**

## Tiiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ



### ♦ Kontenedore bat sutan

Larunbat gauean ezezagun batzuk Mizpirualdeko kontenedore bati sua eman zioten. Ertzainek espumazko estintoreak erabili zituzten sua amatatzeko. Astelehenean berriz erabiltzeko moduan zegoen kontenedorea.

### ♦ Kultura

1994ean Udaletik dirulaguntza jaso zuten kultur taldeei urtean zehar egindako ekintzak, diru kontuen berri eta etorkizunerako asmoak azaltzeko epea hil honen 30ean bukatuko zaie.

## JAIOTAKOAK

**Iosu Ormaetxe De Dios**
Azaroak 14
**Iosu Diaz Arizmendi**
Azaroak 17
**Olatz Zabaleta Muguruza**
Azaroak 21

## HILDAKOAK

**Juana Francisca Orobengoa**
Azaroak 19, 79 urte
**Juan Larrañaga**
Azaroak 23, 88 urte

# Enpresa gehienetan egin dira dagoeneko hauteskunde sindikalak

**Aurrera** darraite hauteskunde sindikalak eta dagoeneko baditugu hainbat lantegitako emaitzak. Horrela, bada, hona hemen hauteskundeak egin dituzten Bergarako lantegi nagusienetan izandako emaitzak: Zerrajeran ELAk 8 ordezkari lortu ditu, LABek 4 eta CC.OOk bat; TTTn ELAk eta CC.OOk 2na ordezkari lortu dituzte eta UGTk 1 bat izango du; Iraundin 5 ordezkariak ELAkoak izango dira; Algodoneran ELAk 5 eta CC.OOk 4 ordezkari lortu dituzte eta TAVEXen, berriz, ELAk 7 eta LAB eta CC.OOk ordezkari bana; LACORen ELAk eta UGTk 2 ordezkari bana edukiko dituzte; Metagran LABek 4 izango ditu eta ELAk bat; Elayn ELAk 5, LABek 2 eta CC.OO eta UGTk bana eta, azkenik, Narbaizan, ELAk 5 ordezkari lortu ditu eta LAB eta CC.OOk bina.

Hauteskunde prozesua abenduaren azkenera arte luzatuko da. MAYCen, esaterako, abenduaren 19an egingo dira hauteskunde sindikalak. Bestalde, gogoratu behar da Udaletxean emandako emaitzen arabera, LABek 4 eta ELAk 2 ordezkari izango dituztela. Udaleko 118 langileetatik 107k eman zuten botoa eta UGT eta CC.OOk ez zuten ordezkaritzarik lortu.



Hauteskunde sindikalen prozesua luzea bada ere, lantegi gehienetan egin dituzte bozketak. Udaleko langileek ere egin zituzten.

Ikastetxeei dagokienez, Aranzadi Ikastolan, LABek 3 eta ELAk 2 izango dituzte, Mariaren Lagundia Ikastolan STEE-EILASek 2 eta ELAk 1, San Martin de Agirre ikastetxean abenduaren 20an egingo dira eta, azkenik, Miguel Altuna eta Ipintza Institutoetan oraindik ez dira egin.

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Artekale, 27
☎ 76 50 80
(Gaueko 9etatik aurrera)
ABENDUAREN 1ean ZABALDUKO DA!!
ATABAKA
Bittoriano Larrañaga
SALEROSKETAK
ANTZINAKO GAUZAK
Zure esanetara!!

BALDANA
ALBAITARITZA KLINIKA
TXAKURREI IDENTIFIKAZIORAKO MIKROTXIPAK JARTZEKO KANPAINA. ABENDUAREN 31ra ARTE.
**OHARRA:** DERRIGORREZKOA DA MIKROTXIP HAUEK JARTZEA.
Koldo Eleizalde, 28 ☎ 76 27 97 / 90 81 09 30

### ◆ Antzuolako Txistularien kontzertua

Antzuolako Txistulari Taldeak kontzertua eskeiniko du igandean 12.15etan Antzuolako Udaletxeko aretoan. Aurretik, 9.30etan kalejira izango da eta kontzertuan, berriz, honako piezak eskeiniko dituzte: *Ezpata dantza de la Opera Amaia, Iriarena, Hiru damatxo, Habanera del Guria, Itsaertzera zatoz, Atiarno: fandango eta arin-arina, Iruñeako jaiak: Diana eta Iruñeatarra* eta, azkenik, *Agur jaunak*.

### ◆ Txerriki eta basurde haragiari buruz oharra

Bergarako Udalak bidalitako ohar baten arabera, herritarrei jakin arazi nahi zaie zer nolako arriskua duten txerriki edo basurde haragia sanitate kontrolik gabe jatearekin. Albaitariek jakin arazi dutenez, etxeetan hiltzen diren txerriak eta ehizean harrapatzen diren basurdeak sanitate kontrolik pasatu gabe jaten ari da jendea. Hori dela eta, behar beharrezkoa da, produktu hauek jan aurretik, albaitari batek aztertzea.

### ◆ V. Binakako Pala Txapelketa

Pala Txapelketarako izena emateko epea abenduaren 13ra arte luzatuko da. Bestalde, partiduak larunbat arratsaldetan jokatzea erabaki da. Argibideak 76 59 57 telefonoan.

### ◆ Kirol dirulaguntzak

Udal Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, datorren urterako dirulaguntzak eskatzeko epea azaroaren 30ean bukatzen da.



Lehen bi euskal abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera, JARDUNen eskutik.

# Euskal abizenak euskal grafiara aldatzeko kanpaina

## *JARDUNek jarri du martxan, urtarril bukaera arte*

JARDUN Elkarteak euskal abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina jarri du martxan. Agiri ofizialetan beren lehen bi abizenak erderaz idatzita dituztenek euskarara aldatzeko aukera izango dute hemendik urtarrilaren 31ra arte. Horrela, bada, Nortasun Agiri Nazionalean Ganchegui Echave jarrita duenak, Gantxegi Etxabe jartzeko aukera izango du aurrerantzean.

Interesatuek N.A.N.aren fotokopia eraman beharko dute astelehenetik ostiralera, 6.30etatik 7.30etara bitartean, JARDUNera (Masterreka 13). Fotokopia horiekin JARDUNek instantzia batzuk beteko ditu Epaitegian eta, jaiotze eta erroldatze agiriekin eta Euskaltzaindiatik jasotako agiri bereziarekin batera, dokumentazio guztia Madrilera bidaliko du. Lau-sei hila-bete barru eskakizuna egin dute-nak Epaitegian aurkeztu beharko dira paper bat sinatzeko.

Kanpaina 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta hortik behera-ko kasuetan gurasoek egin behar-ko dituzte tramiteak.

JARDUNek bergarar guztiei kanpaina honetan parte hartzeko deia zabaldu nahi die. Horretarako erreztasun guztiak ematen dira eta JARDUNeko ordezkarien ustez euskararen normalkuntzarako pau-su garrantzitsua izan daiteke. Era berean, gauzak errezteko, abize-nak euskaraz jartzeko eskakizuna familia osoak egitea eskatzen da.

Argibide gehiago, JARDUN El-kartean edota 76 08 19 telefono zenbakira deituta jaso daiteke.

**JESUS J. GIRALDO ARGÜELLO**
LISERIKETA APARATUA
*X izpiak, endoskopiak eta terapeutika endoskopikoa.*
*LAGUN-ARO, Foru Diputazioa, Previasa eta partikularak.*
**Loramendi, 6 Torre Eguzki 2.B ARRASATE**

**ETXAGI**
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



Etorritako guztiek oso inpresio ona eraman zuten egiten ari diren lanak ikusi ondoren.

# Diputazioko ordezkariak Udaletxeko lanak bisitatzen

*Berrikuntza lanak abendu azkenerako amaitzea espero da*

Aurreko ostiralean Anton Arbulu Hirigintza Diputatua eta Gipuzkoako Batzar Orokorretako komisio batek Udaletxea eta Barrenkaleko fatxaden berrizketarako lanak bisitatu zituzten. Aurretik Oñatin eta Arrasaten ere izan ziren beste hainbat lan jarraitzen.

Bergaran, besteak beste, Arbulu bera, Victoriano Gallastegi alkatea eta EAJko Batzarkidea, Imanol Murua EAko Batzrkidea, Javier Cendoya PSE-EEko zinegotzia, Luis Laskurain Suradesako teknikaria, inguruko herritako beste hainbat ordezkari edota Iñaki Aspiazu Udaletxea berrizteko proiektuko arkitekto arduraduna izan ziren.

Bertan jakitera eman zenez obrak martxa onean doaz eta baliteke abendu edota urtarrilerako Udaletxeko berrikuntza amaituta egotea. Bildutako guztiek beren mirespena azaldu zuten egiten ari den lanarekin eta, gaur egun, Gipuzkoako proeikturik nagusienetariko bat dela adierazi zuten. Iñaki Aspiazu arkitektoak Udaletxearen antolakuntza berria eta lanen xehetasun guztiak eman zizkien bildutakoei.

Lanek hasieran 657 milioi pezetako aurrekontua bazuten ere, zihurtzat eman daiteke zifra horrek gora egingo duela obrak amaitutakoan. Inaugurazioa otsaila aldera egin daiteke.

Barrenkaleko fatxaden berrizketari dagokionez, proiektua azken fasean da. Bergarak guztira 21 milioiko laguntza jaso du proiektu horri aurre egin ahal izateko.

### ◆ BOTAren bilera

BOTA Bergarako Talde Antimilitaristak dei egiten die herriko intsumiso guztiei bihar larunbata arratsaldeko 4retan Zabalotegiko lokalean egingo den bileran parte hartzeko. Bestalde, Miguel Altuna eta Ipintza institutoko ikasleek greba eguna eta manifestazioa egin zuten ostiralean intsumisoei elkartasuna adierazteko.

### ◆ Egunkariko tonbola

Egunkariko tonbolako boletoak herriko zenbait tabernetan salgai jarriko dira astebukaeratik aurrera. Sariak Odol Emaleen ondoko lokalean banatuko dira.

### ◆ Anoetara autobusak

Realeko partidutara joateko bi autobus aterako dira hemendik aurrera. Partiduko sarrera eta autobuserako txartela erakutsi beharko dira eta bus txartela larunbat eguerdia baino lehen jaso beharko da Deportivon.

### ◆ Firma bilketa

Ginekolojia Zerbitzua hobetzeko firma bilketari ekin zitzaion aurreko astean (beheko argazkian). Ondorengo egunetan hainbat denda eta tabernetan sinadura orriak izango dira. Oraingoz 1.200 firma jaso dira.



Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

*Administrazioa*

# Hizkuntz perfilak



**ESTEPAN PLAZAOLA**
*(Udaleko Euskara dinamizatzailea)*

**- Zer dira hizkuntz perfilak?**

- Hizkuntz perfila da administrazioko lanpostu bakoitzari jarri zaion euskara maila bat, hau da, lanpostu bakoitzean lan egiteko eduki beharko litzatekeen euskara-maila. Lau maila diferente daude: bajuena, bata, esku-langile eta halakoena; eta altuena, laugarrena, sekretario, goi-tekniko eta halakoena.

**- Funtzionario guztiei esijitzen zaie euskaraz jakitea?**

- Ez, herri batetik bestera euskara jakin behar duten langileen portzentajeak diferenteak dira. Formula sinple bat aplikatzen da herri bakoitzean euskara derrigorrezkoa zenbat lanpostutan den jakiteko. Herri horretako euskaldunen portzentajea hartu eta horri ia-euskaldunen portzentajearen erdia gehitzen zaio. Bergaran plana martxan jarri zenean, euskaldunak % 66 ziren eta ia-euskaldunak % 16. Orduan, euskara derrigorrezkoa izango duten lanpostuak hauek izango dira: % 66 gehi % 16/2 = % 74.

**- Eta formula hori aplikatzen da herri guztietan?**

- Bai, formula hori aplikatzen da. Horrela irtetzen da Gasteizeko Udalean lanpostuen % 14k duela euskara derrigorrezkoa: Bilbon, % 19k eta Lantaronen %1ek.

Baina horiek dira euskara derrigorrezkoa duten lanpostuak, ze kontutan hartu behar da euskara derrigorrezkoa duen lanpostu horretan zegoenak plana martxan jarri zenean 45 urtetik gora bazituen ez duela perfila lortzeko obligaziorik; gero, oinarrizko ikasketak ez dituztenak ere libre geratzen dira... Praktikan, euskara ikasi beharra dutenak herriko euskaldunen portzentajea baino gutxiago izan daiteke askotan.

**- Zer kondizio jarri zaizkie langile horiei perfila lortzeko?**

- Alde batetik, obligazio batzuk jarri zaizkie, epe bat jarri zaie, kasu bakoitzean diferentea, bakoitzak zeukan mailaren eta lortu behar duenaren arabera. Eta bestetik, erreztasun batzuk eman zaizkie; normala denez, beste herritarrei eman ez zaizkien modukoak: klaseak eskaini zaizkie lan-orduetan dena ordainduta; hasierako epeak luzatu egin zaizkie; ahalegindu eta ezin zutela ikusiz gero, derrigortasuna kendu ere egin zaie...

**- Zer pasatuko da perfila lortzen ez dutenekin?**

- Nik ez dakit zer pasatuko den. Baina esan beharra dago ez litzatekeela justoa denak zaku berean sartzea. Ezin dira berdin juzkatu erreztasun guztiak eman eta berak nahi izan ez duelako ikasi ez duena eta edozein arrazoigatik administrazioak ikasteko aukerarik eman ez diona. Bestalde esan beharra dago hainbat tokitan plana nahiko ondo betetzen ari dela eta horren adibide bat dugu Bergarako Udala bera. Eta, garbi eduki behar da administrazioaren euskalduntzean ezin dela atzera egin.

**"Esan beharra dago, hainbat tokitan plana nahiko ondo betetzen ari dela"**



Herriko euskaldunen portzentaiaren arabera jartzen dira derrigorrezko perfilak.




ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA



Jehovaren lekukoak dira. Noiz ez ditu kalean edota etxeetako ateetan ikusi?

# Jehovaren lekukoak

## Biblia etxez-etxe zabaltzen

**Etxez etxe ibiltzen dira Biblia lau haizetara zabaltzen, guztiok ikusten ditugu, baina gutxi askok egiten diete kasu, Jehovaren Lekukoak dira. Halere eurak sinestuta daude gure gizartea aldatu beharra dagoela eta aldaketa hori egiteko Bibliak agintzen duena beteaz egin behar dela uste dute, liburu sakratua baita euren bizitzaren ardatza.**

Jehovaren lehen lekukoa Abel izan omen zen eta XIX. mendearen amaiera arte, izkutuan izan ondoren, EEBBetan hedatu zen erlijioa. Ordutik hona mundu osoan zehar zabaldu dira eta gaur egun 4 milioi inguru daude munduan zehar sakabanaturik.

Jehovaren lekukoak Biblia edo liburu santua euren bizitzaren oinarritzat dute. Biblian agintzen duena etxez etxe zabaltzeaz gain, bizimodua ere Bibliaren esanetara moldatzen dute. Gure herrian 25 lekuko dira eta astean zehar 5 aldiz biltzen dira Ozaetako Erreinuaren Aretoa deritzon egoitzan. Lehena astearteetan egiten dute, asteazkenetan bi bilera testiguei nola predikatzen den erakusteko eta igandean, berriz, beste bi bilera euren gauzez hitz egiteko.

Jehovaren Lekukoen artean badira batzuk superintendente kargua dutenak, eta besteei erakusteko eta laguntzeko daude. Halere superintendente ezin daiteke edonor izan eta baldintza batzuk bete behar ditu. Gizonezkoa, emakume bakar batekin ezkondua, ohitura moderatuduna, ordenatua, hospitalarioa, razionala, pakezalea etb. izan behar da superintendentea. Baldintza guzti horiek betetzen dituelako izendatu dute Migel Angel Lezeta superintendente. Lekukoek etxez etxe joateagatik ez dute ezer kobratzen ezta lekukoa izateagatik ere. *"Gure eremua Antzuola, Elgeta, Oñati eta Antzuolara hedatzen da. Herri horietara joateko dirua gure poltsikotik ateratzen dugu eta bizitzeko tailerrean lan egitetik ateratzen dut. Lekuko izatea diru iturria izan beharrean, diru galtzea da"* dio Lezetak.

### "Benetako kristaua sakrifikatu egin behar da"

Lekukoak etxez etxe Biblia predikatzera joa-

SURPE
Taberna
Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

• Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketa
• Era guztietako konponketak, garbiketak...
• ESKAINZTA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!
Mekolalde
Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14
AUTOAK

ten direnean askotan ez dira ondo ikusiak izaten. Azkenaldian, Lezetak adierazi digunez, jendeak edukazio hobearekin hartzen ditu.

Predikatzera joateko ez dute ordutegi zehatz bat bete behar, bakoitzak denbora librea duenean joango da Biblia zabaltzera. Baina beste erlijio batzuen moduan zail dute jarraitzaile berriak egitea eta hori azaltzeko Bibliaren pasarte bat aipatu digu Lezetak. *"Azken egunak gogorrak eta manejatzen zailak izango dira. Gizakiak bakoitzak bere burua maitatuko du soilik, harroak, deslealak, traizioneroak, faltsoak etb izango dira eta horietatik alde egizue"* esaten du pasarteak.



Bileretan Biblia sakondu eta euren gauzetaz hitzegiten dute.

Lezetaren ustez, horrelako pertsonaz dago beteta mundua eta lekukoen zeregina gizakioi horretaz ohartaraztea da. *"Kristaua benetakoa izateko sakrifikatu egin behar da. Niri ere gustatuko litzaidake asteburuetan mendira joatea edo etxean gelditzea. Baina nere ardura da jendeari egoeraz abisatzea. Etxe bat sutan dagoela ikusten baduzu, barruan dagoenari abisatu behar diozu, gero irten nahi ez badu, bere arazoa izango da"* esan digu Lezetak.

**Emakumearen papera**

Erlijio katolikoan gizonezkoak bakarrik izan daitezke apaiz; emakumezkoak, aldiz, monja. Jehovaren Lekukoen artean superintendentak gizonezkoak dira eta horren zergatia Biblian aurkitzen dute Jehovaren jarraitzaileek. *"Jaungoikoak lehenengo gizona egin zuen eta emakumea gizonak zerbait falta zuelako egin zuen, gizonaren osagarri, bien artean bat egiteko. Guk ez dugu beherago jartzen emakumea, baina orden bat eramateko buru bat egon behar da. Arazoren bat dagoenean norbaitek hartu behar du erabakia"* adierazi digu Lezetak.

Bergarako Jehovaren Lekukoen superindentea gaztetan Arantzazun fraile izan zen, baina han berak esaten duenez ez zioten Bibliak esaten duenaren arabera bizitzen erakutsi. *"Erlijio katolikoak esaten du Biblian oinarritzen dela, baina gauza batzuk, Trinitatea bezala, berarentzat garrantzia handia duena, agertu ere ez da egiten liburu santuan. Era berean katolikoek esaten dute arima hilezkorra dela, baina Bibliak garbi esaten du pekatua egiten duen arima hil egi-*

**"Etxe bat sutan dagoela ikusten baduzu, barruan dagoenari abisatu behar diozu, gero irten nahi ez badu, bere arazoa izango da"**

antzinako gauzak
dekoratzeko ideiak
Rincones dekorazioa
Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxa: 76 52 98

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak
Errioxako ardoa, olioa, esnea, lejiak...
Martokua, 32 ☎ 76 45 94

*ten dela"* adierazi digu Lezetak.

**"Gu ez gara sekta bat"**

Azken boladan gure inguruan erlijio berriak asko ugaldu dira eta adi-tu askok sektatzat jotzen ditu. Jehovaren Lekukoak ere askorentzat sekta bat dira, horrek dakarren zentzu txarrarekin. Baina legalki beste erlijio batzuk duten izaera dute eta ez dute onartzen sekta bat direnik. *"Gu erlijio bat gara, beste batzuk bezala. Jehova jaungoikoaren izena da eta guk bere semeak erakutsitako gauzak jarraitzen ditugu. Kristauak gara"* dio Lezetak.

Bataioak, ezkontzak eta hiletak ere egiten dituzte, baina ez erlijio katolikoak bezala. Bataioak pertsona heldua dela uste dutenean egiten dituzte, euren ustez umeek ez baitute heldutasunik bataioa hartzeko.

Ezkontzak ere Erregistro Zibilean egiten dituzte eta ondoren euren egoitzan ezkonkideei bakoitzak duen papera azaltzen zaie. Finantziabideei dagokienez, Jehovaren Lekukoek azaldu digute euren gastuak ordaintzeko bakoitzaren poltsikotik ateratzen dutela. Dirua kobratzen duten bakarrak egun osoan zehar etxez etxe edo beste estatu batzuetara predikatzera joaten diren misiolariak dira. ■

## Odol ateraldien polemika...

Jehovaren Lekukoek ez dute onartzen beste batzuen odola hartzea eta horrek azkenaldian polemika ugari sortu du. Odolik ez hartzean azalpena eman digu Lezetak. *"Bibliak esaten du bizitza Jaingoikoak kentzen edo ematen duela. Odola lurrera isurtzen denean tapatu egin behar da edo okela jateko orduan odol barekoa izan behar da. Orduan Jaingoikoak esaten du odola ezin dugula hartu. Horrek ez du esan nahi hil nahi dugunik, badira alternatiba batzuk transfusioak ebitatzeko"* dio Lezetak. Testiguek, besteak beste, ez dute bozkatzen, abortoaren aurka daude, neutralak dira arazo politiko eta militarretan, horregatik ez dira soldadutzara joaten eta ordezko zerbitzu soziala ere ez dute onartzen. Pekatu nagusienak, ezkontzaren fideltasuna apurtzea, lapurreta, hilketa eta homosexualitatea dira eurentzat.


MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Eleizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00



BERRI gazte

Aranzadi Ikastola • IKASLEEN ORRIAK • 22. alea

# SOLASALDIAN
# Igor eta Ikerrekin:



Igor Gutierrez eta Iker Muruamendiaraz, pelotaren etorkizuna.

**- Zenbat urte daramazue pelota munduan?**

- MURU: 7 urte, beraz, 10 urterekin hasi nintzen.

- GUTI: 6 urte, beraz, 11 urterekin hasi nintzen.

**- Zenbat txapelketa garrantzitsu irabazi dituzue?**

- MURU: Asko, ezin dira denak kontatu.

- GUTI: Eskas, oraindik egin gabe nago.

**- Nola jokatzen duzue, bakarka ala binaka?**

- Bietara, baina gehienbat binaka.

**- Trofeo asko al duzue? Eta txapelketak?**

- MURU: Etxean ezin dira kabitu dagoeneko.

- GUTI: Trofeo gutxi dauzkat, gehienbat Mururekin irabazita.

**- Zer moduz konpontzen zarete pelota partiduetako kontrinkanteekin?**

- Kantxa barruan ez dugu lagunik, baina hortik kanpo oso ondo konpontzen gara.

**- Lesiorik izan al duzue? Nolakoak?**

- MURU: Gehienbat burukoa da, bestela ondo nago.

- GUTI: Bai, besoa puskatu nuen txorakeriak egiten.

**- Inoiz negarrik egin al duzu pelotagatik?**

- MURU: Hasieran min ematen zidan baina ohitu naiz.

- GUTI: Hasieratik ohitu naiz galtzen, beraz, ez dut arazorik arlo horretan.

**- Astean, zenbat aldiz entrenatzen duzue?**

- Hiru aldiz, bi fisiko eta batean pelota.

**- Ondo konpontzen al zarete batera jokatzen?**

- Bai, oso ondo. Hori da gure armarik gogorrena.

**- Entrenadore ona al duzue?**

- Bai, oso ona, Reyes Azkoitia da, emakumea bera. Edozein gizon baino hobea.

**OHARRA: Ea neskak noiz hasten diren pelotan!!**

IXONE GANTXEGI
IRATI URZELAI
ARGIÑE ZURUTUZA
MAITE LAZKANO
UXUE BERISTAIN

***"Kantxa barruan ez dugu lagunik, baina hortik kanpo ondo konpontzen gara"***

## GAZTEEN ARAZOAK

Drogen ondorioz sortu dira
zenbait buruhauste
aurkitu bait dira
pila bat nahaste.
Mundu osoan daude
hainbat eta hainbat gazte
baina euren errua ez dela
frogatu dezakete.

Drogazaleez gain
baditugu intsumisoak
horren ondorioz
gartzelara joaten lehengoak
sari bat merezia dute
direlako pakearen aldekoak
egiten bait dituzte
egin beharrekoak.

ENERITZ URBIETA

IRMA OLABARRIA

## Txistea

**Oporretan nengoela gure kanpin ondoko mendi batek sua hartzen du eta bertara doaz inguruko suhiltzaile denak, kamioiz, hegazkinez e.a. Gero itsasotik ura hartzen duten hegazkin horietako bik itsasotik ura hartu eta gero ur guztia sutara botatzen dute, sua itzaltzeko. Sua emendatzen dagoenean, bi suhiltzailek urpekari bat zuhaitz batetik zintzilik ikusten dute laguntza eske.**



## *Izki Sopa*

## Olerkian dauden bost hitz aurkitu

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | K | U | S | T | H | D | U |
| A | B | E | R | O | K | U | K |
| X | I | D | E | T | S | P | H |
| O | H | T | E | K | H | O | B |
| B | O | G | A | H | N | L | A |
| A | T | E | E | S | O | L | R |
| X | Z | G | D | B | U | O | N |
| P | A | S | T | O | L | N | E |
| H | O | Z | K | L | B | T | A |

**Zutaz** maiteminduta nago
baina ezin dut
hitz sinple batzuekin.
bihotzean sentitzen
dudana espresatu.
Ahaleginduko naiz,
bihotzeraino gerturatzen,
baina beharbada
ez da maitasuna
adieraziko dudana,
maitasunaren sintomak
baizik.

Kalean ikusten zaitudanean
bihotza, ateratzeko zorian
jartzen zait.
Nire aurpegia,
bero jartzen dela
sentitzen dut.
Nire gorputz osoa,
sentsazio goxo batek
betetzen du.
Begiratzen didazunean
nire barneko beroa
gehitu egiten da
eta lotsaturik
ezkutatu egiten naiz.

# Sinisduna zara? Erlijiorik praktikatzen al duzu?



**Jesus Etxabe**
*62 urte, jubilatua*

Erlijio katolikoan, Jaungoikoagan, sinisten dut eta astero-astero mezetara joaten naiz.



**Sagrario Osinalde**
*34 urte, etxekoandrea*

Sinisduna naiz, Jaungoikoagan sinisten dut, baina ez daukat mezetara joateko ohiturarik, ileta elizkizun, ezkontza edo horrelakoren bat izan ezean.



**Bixente Madariaga**
*62 urte, jubilatua*

Jaungoikoagan sinisten dut, ez ordea, Jehovarengan. Mezetara maiz joaten naiz.



**Esperanza Vicente**
*36 urte, langilea*

Bai, Jaungoikoagan sinisten dut, baina ez dut erlijioa maiztasunez praktikatzen, ez daukat mezetara joateko ohiturarik.



**Miguel Angel Alonso**
*14 urte, ikaslea*

Ez, ez dut sinisten, eta eskolan ez dut Erlijioa ikasten, Etika ematen dut.



**Margarita Martí**
*30 urte, langilea*

Bai, sinisduna naiz, txikitatik erakutsi zidaten erlijio katolikoagan sinisten dut, baina ez nàiz mezetara joaten.

Biltoki

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

xey

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS

TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



## *Umezain nagusia*

Topiko bat konfirmatu da. Eustat-ek orain dela gutxi argitaratu zuen Euskal Autonomi Elkarteko biztanleek bere denbora banatzen duten moduari buruzko txosten bat. Txosten honek jende gehienak usten zuena baieztatu du. Datuen arabera, telebista ikustea da euskaldunon denbora librearen aktibitate nagusia. Bi ordu eta 23 minutu pasatzen ditu biztanleen % 82k, egunero telebistaren aurrean. Lagunekin kalera irtetzeari edo irakurtzeari baino denbora gehiago ematen diogu "caja tonta" delako horri. Espainiako datuekin konparatuz, hemengoak ez dira hain kaxkarrak, hiru ordu eta 20 minutukoak izan baitziren 1993an Espainiako zifrak Solfes enpresaren esanetan.

Telebista gure eguneroko bizitzaren zati bat bihurtu da, gure etxeetan sartu zen eta leku onena hartu du, jangelako altzari nagusian, lehen irudi sakratuek zuten tokian kokatua, agian, "munduko leiho" horrek sortzen duen sentimendu ia erlijiosoari jarraituz. Gure arbasoak sutondoan biltzen baziren, orain telebistak gu biltzen gaitu, lehen istorio eta elkarrizketarako gunea bazen sua, orain telebistak bakarrik hitz egiten du.

Asko dira etxera ailegatu bezain laster elektragailu hau pizten dutenak, eta kasu okerrenetan, otorduetan kaxa hau gonbidatu gisa bere mahaietan daukatenak. Ohitura txarra da hau, bat baino gehiago gose barik geratu da Ruandako edo odolez blai egindako irudiak bere bazkariarekin batera "jan" eta gero. Eta kalera irten eta berriketan hasiko bagina, mundutik kanpo sentituko ginateke programa hau edo beste hura ikusi ez bagenu. Informazio hori falta baldin bazaigu, zertaz hitzegiterik ez dagoela dirudi. Xelebrekeria besterik ez da, baina azkenean telebistak, etxean isilik uzten gaituenak, kalean berba egiteko aukera ematen digu.

Komunikabide honek baditu alde onak, baina telebista ikusten ere ikasi behar dugu, "kriterio" bat sortuz eta txikienei lauki horretatik agertzen den guztia erreala ez dela erakutsiz. Jokaera kritiko bat izan behar dugu pantaila aurrean eta gogoan izan telebista ez dela umezain onena, ez txikientzat ezta helduentzat.

**German LARRAÑAGA**



## *Kolo-kolokan*

Astebukaeran entzun nituen komentarioez baliatu naiz eta ausartu aldi berean, euskal futbolak, Errealak esaterako, izan dituen gorabeherez mintzatzeko. Ezohizkoa da niretzat gai honen inguruan idaztea baina neu ere zaletu, eta ez zaletu amorratua, naizen heinean, inguruan sortu diren komentarioak, egoki ala desegokiak izan diren baloratu nahi gabe, aipatuko nituzke.

Asteko gaia Errealaren azken porrota izan da zoritxarrez, aspalditik ikusten eta irakurtzen ditugun kritikek ere mahai gainetik ez dute alde egiten.

Zaletu gehienentzat arazoa pil-pilean egotetik, txinpartak sortaraztera pasa da. Horrenbeste polemika ez da aspaldian ezagutu, bestalde sailkapen maila ere ez da inoiz hain baxua izan. Batzuen hitzetan, itxuraz behintzat, dinamika eta talde harremanak ez doaz parekaturik eta konzentrazio falta dago jokalarien artean, beste batzuen hitzetan, partiduen amaieran, Urangaren masail gorri-gorriek eta mister-aren buru-makurketek nahiko argi uzten dute, jokalarien lan eskasa ahaztu gabe, arazoaren larritasun maila non dagoen, eta zaletuen laguntza behar beharrezkoa dela honelako kasuetan. Edozein taldek, nik uste, behar beharrezkoa du harmailetako jendearen saltsa eta laguntza, egoera onean edota txarrean, beraz pazientzia pixkat eta benetako errealistak garela erakutsi behar dugu.

Hamaika partidutan 18 gol sartu dizkiote Errealari eta Errealak aldiz 12 sartu ditu. Golak ez dira falta baina positibo eta puntuak aldiz bai, bost negatiborekin egotea ez da oso atsegina eta ondoren datozen bi partiduek bati baino gehiagori ileak puntan ipiniko dizkiotela ez dago esan beharrik.

Arazoak bata bestearen ondoren etorri ziren, Bittorren polemika, Peña Mujika eta Urangaren arteko tira-bira, direktiba eta entrenatzailearen aurkako komentario eta alde egite eskaerak...

Badirudi dena beltz azaltzen zaiola Errealari baina nik uste aurrera ateratzeko gai izango direla txuri-urdinak. Animo mutilak!!

**Aitziber AZKONDO**


# Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta

SERRANO DOKTOREA

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR PATOLOGIA
- ZIRUGIA
- HAURDUNALDIA
- JAIO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ESTERILAZIO KIRURJIKOA (GIZONAK/EMAKUMEAK)
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA

**PREZIO BEREZIAK, 25 URTEZ BEHERAKO, ETXEKOANDRE ETA ZAHARRENTZAT (LAGUN-ARO ASEGURUAK, IGUALATORIO MEDIKU-KIRURJIKOA...)**

**San Martin Mediku Zentrua**

**Ramon Maria Lili, 2 (LASA Jatetxea zegoen atzekaldean) BERGARA. Tfnoak: 76 59 39 / 72 Faxa: 76 25 72**



## Animen Eguna

Ohitura den bezala, aste
gauean **osintxuarrek**
Animen Eguna ospatu z
lagunartean. Hainbat k
mahai baten inguruan b
ziren ondo afaldu eta j
solasaldi luze bat izatek
asmoz. Oraindik ere ez
dakigu ospakizun hone
jatorria (eskertuko genu
norbaitek argitzea) bain
kontua da osintxuarren
ondo errotuta dagoela.
Ohiturak agintzen duen
bezala aza, odoloste, sa
eta gaztainak jan zituzte
gehienek.
Datorren urtean
gehiago!!

## Herri Torrontegirekin

**Zapelaitz Motorzale Elkarteak** antolatuta, Bergarako motorzaleek afaria izan zuten aurreko larunbatean **Zuhaizti** tabernan. Guztira 43 lagun bildu ziren eta gonbidatuen artean **Herri Torrontegi** izan zen. Gure motorzaleek asko apreziatzen dute Herri eta honek ere primeran pasa izan du gure herrira etorri izan denean. Denboraldia amaitu berri denez, eta nahiz eta esio bategatik errenka dabilen, ondo baino hobeto etorriko zitzaion lagunarteko afari on bat, ondorengo solasalditxo eta juergatxoa. Ea hurrengoan Gorlizkoa munduko txapelarekin etortzen den!!



Herri Torrontegi, Bergarako motorzaleekin bildu zen joan zen larunbatean.

Iturkintz Berri
INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

### Santa Zezilia

Astearteean **Musika Eskolako** ikasleek Santa Zezilia eguna ospatu zuten. Arratsaldeko bostak aldera **Gazteen Banda** kalejiran irten zen herria kaleak musikaz alaitzeko asmoz eta, Hamelingo Flautistaren antzera, han eraman zuten aurretik eta atzetik haur mordo bat. Kalejira amaitu ondoren txokolotada egin zuten eta jarraian "La pandilla" musika filmea ekeini zen Novedades aretoan.



Zorionak musikari guztiei eta ez dadila inoiz musika isildu....

### Elkartasuna

"**Juventud Vasca Cooperante**" programan parte hartu duten gazteek beren esperientzien balorazioa egin zuten aurreko astebukaeran **Barria**ko (Araba) **Santa Maria monastegian**. 70 bat gazte izan dira Latinamerika, Asia eta Afrikako herrialdeetara solidaritatea eta laguntasuna eramaten saiatu direnak, horien artean **Mikeldi Bengoa** bergararra. Mikeldiri (argazkian zutik, eskumatik hasita bigarrena) Perura joatea suertatu zitzaion eta **Limako San Jose Obrero ikastetxean** hilabete t'erdiz laguntza ematen egon zen. Esperientzia guztiz aberatsa jaso zuen Mikeldik hango jendearengandik eta hurrengo batean berriz ere bueltatzeko prest azaldu da.



## Zertan *dihardute* ba?



**Iñigo Uribesalgo**

25 urteko bergararrak eta Udaleko Ur Zerbitzuko langileak herriko ur-kontadoreen irakurketa eta kontrolari ekin zion aurreko astean, bajan dagoen Jose Antonio Mendikuteren ordez. Iñigok urtebete inguru darama Ur Zerbitzuan eta Bergarako enpresa eta etxebizitza guztietako ur-kontadoreen kontrola eraman beharko du; *"alta berriak egin, gelditutakoak aldatu eta horrelakoak ere egin beharko ditut eta jendearen kolaborazioa eskertuko nuke"*. Era berean lerro hauetatik errekuperazio on bat opa diogu Jose Antonio Mendikuteri.


**BERGARA Karrozeriak**
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

# Natalio Juaristi

**San Andres egunean 82 urte beteko ditu. 42 urte eman zituen Udal Musika Bandan txapak jotzen eta gaur egun Jubilatuen abesbatzako partaiderik helduena dugu ("zaharra esatea insultoa da" dio ohizkoa duen umoreaz).**

**- Zelan ospatu duzu Santa Zezilia?**
- Domekan Bandarekin eta astelehenean Jubilatuetan; abestu eta bazkaria eginaz.
**- Musika jo ala abestu?**
- Bietarako ere ez gara gauza... Banda on bati entzutea onena.
**- Kontzertuak aretoetan ala aire librean?**
- Itxian gehiago apreziatzen da.
**- Konpositore bat?**
- Rossini.
**- Eta pieza bat?**
- "Guillermo Tell", Rossinirena.
**- Instrumento bat?**
- Klarinetea, nahiz eta sekula ez dudan jo.
**- Musikarako eguneko momenturik onena?**
- Bazkalaurrea, berandu samar jo ezkero, txikito asko eta. Pare bat edanda, hobeto jotzen da (barre).
**- Diskoa ala compact-disca?**
- Bilobek "Los tres tenores"en diskoa oparituko zidatela agindu zidaten. Ez dakit...
**- Filme bat?**
- Ez naiz "zinistia" izan. Baina gogoan daukat pelikulak orkesta batez laguntzen zirenean.
**- Jubilatuetako ekintzetan parte hartzen duzu?**
- Bai, baina jokoaren kontrakoa naiz. Kartetan ez dut egiten.
**- Hobby bat?**
- Billarrean egitea. Ona ez naiz, baina "del monton".
**- Egunkariko zein atal irakurtzen duzu lehenbizi?**
- Portada eta Diarioan Alcantararen artikulua. Baina gezur asko esaten dira; nahiago dut historiako liburuak irakurri.
**- Noiztik idazteko zaletasuna?**
- Jubilatu nintzenetik.
**- Inspirazioa nondik?**
- Gauean ohean nagoenean.
**- Idatzi boligrafoz ala makinaz?**
- Makinaz. Eskribitzen nagoenean gozatu egiten dut.
**- Zein elkartetako bazkide zara?**
- Inongoa ere ez.
**- Lagunekin zeri buruz berba?**
- Ez gara bata besteari erakusten egoten. Eguneko gauza eta periodiku kontuei buruz. 21 lagunetatik 3 bakarrik geratzen gara...



*"Musika alaia gustatzen zait eta konpositoreen artean Rossinirekin geratzen naiz. Musika entzun eta joteko momenturik onena bazkalaurrea da. Hobby bat? Billarrean jokatzea. Idazten nagoenean ere gozatu egiten dut"*

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
• AROZLAN MEKANIKOAK
• SUKALDEKO ARMAIRUAK
• HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK, etab.
• TARIMAK-PARKETAK
• NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
• PVCzko LEIHOAK
Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Irizar, 2
☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK

AKORT
• Fotokopiak koloretan
• Publizitatedun kamisetak
• Oihal inprimaketak
San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta, 14 BERGARA

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Ion Zangitu

**Ion Zangitu**k jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen errekaren izena galdetzen genizuen eta era askotako erantzunak jaso ditugu. **Deskarga, Antzuola** eta **Uola** erreka jarri duzue gehienek eta guztiak ontzat eman ditugu. Saria, ordea, bati eman behar eta oraingoan **Ion Zangitu**ri tokatu zaio. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Ion**i eman dizkiogu. Zorionak!!

***Gamarra izenaz ere ezaguna den Barroko tankerako (XVII. mendea) etxe honetan Espartero eta Marotoren arteko "Bergarako Ituna"ren izenpetzea gauzatu zen. Zein urtetan gertatu zen hori eta zein da etxe ezagun honen izena?***

______________________________

**Izena:** ________ **Abizena:** ________ **Tfnoa.:** ________

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

## ETXEBIZITZA

**Etxe berria** salgai Osintxun. 100 m2, ganbara eta garajea. ☎ 76 48 63.

**Pisua salgai** Artekalen. ☎ 76 12 81.

**Pisua salgai** Osintxun. ☎ 76 50 05 (Josune).

**Pisu txiki bat alokatuko** nuke. ☎ 76 07 07.

**Pisua alokatzen** da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua salgai** Jon XXIII enparantzan. ☎ 76 13 75.

**Garajea** alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

**Pisua salgai** Artzamendin. ☎ 76 10 55.

**Garajea salgai** Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

**Pisua** alokatzen da Bolun. ☎ 76 39 91.

**Pisua salgai** Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

**Pisua** bat salgai Basarten. ☎ 76 25 45 (Javier).

**Garajea saltzen** da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

## DENETARIK

**Renault 18** diesela salgai. ☎ 76 50 18.

**Baineta**rako hidromasaje aparailu, lehorgailu eta beste osagaiak. 90.000 pezeta. ☎ 76 53 90.

**Karro-denda** ia berria salgai. Prezio onean. ☎ 76 41 21.

**Mendiko** bizikleta bat salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 02 82 (Alex).

**Lada Niva** (SS-AN) eta **Ford Scort** (SS-AD) kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

**Volkswagen Corrado** kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauez).

**Renault 19** 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

**Zibro** estufa salgai (egoera onean). ☎ 76 12 86.

**Fagor ur berogailua** salgai (150 litrotakoa). Egoera eta prezio onean. ☎ 78 33 09 (Ainhoa).

**Zibro-kamin** kerosenozko estufa bat salgai. Merke. ☎ 76 05 94.

**Geace´s** paseozko bizikleta prezio onean salgai. ☎ 76 16 51.

## LANA

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**BBB 3.eko** matematikako klaseak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

**OHO eta ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Etxebizitzak** garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

**Ingeles Filolojian** lizentziatua, ingeles klaseak. ☎ 76 26 63.

**BBB eta LH** klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

**Etxeko lanak** egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

**Matematika** eta Zientziatako klaseak ematen dira. ☎ 76 06 50.

**Fisika** eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

**Masaje** metamorfikoa ematen dut. ☎ 76 25 99 (Ana).

**Matematika** klase partikularrak ematen dira. Zubieta 2, 1.goa eskuma (Jesus).

**Erizain laguntzaileak** zaharrak zainduko lituzke (gauez ere bai). ☎ 76 47 71.

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Matematika** finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

**Korreo** eta Epaitegirako oposizioak gertatzen dira. ☎ 76 08 53. (Interesatuek deitu dezatela 12etatik 4retara bitartean).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.




POL-POL
TABERNA
☎ 76 07 78

DEPORTIVO
TABERNA
☎ 76 01 51

IBAI GRUAK
ZERBITZUA EGUN OSOAN
San Juan, BERGARA.
☎ 908-67 68 21 (mobila)
900-59 59 59 - 40 06 59 (abonatua)

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

## KIROL KARTELDEGIA

**▶ Futbola**

**Bergara-Amaikak Bat**
Lehen Errejionala.
Igandea, 15.30. Agorrosin.

**Bergara-Antzuola**
2. mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

**Bergara-Mutriku**
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 17.15. Ipintza.

**▶ Eskubaloia**

**Bergara-Bizkor**
Jubenil mutilak.
Larunbata, 17.00.
Labegaraieta kiroldegian.

**▶ Saskibaloia**

**Bergara-Urumea Ikastola**
Kadete mutilak.
Larunbata, 12.15.
Labegaraieta Kiroldegian.

**▶ Gimnasia**

Ariznoa Gimnasia Erritmikoko alebin eta junior taldeek Euskadiko Txapelketan parte hartuko dute larunbat arratsaldean Gasteizen. Arevalillo eta De Cesar entrenatzaileen ustetan, biek ere garaipena eskuratzeko aukera haundiak dituzte. Alebin taldean (10 urte) Amaia Torre, Alba Maestre, Lorea Oya, Aintzane Narbaez eta Jaione Igartua arituko dira eta juniorretan (13-14 urte), berriz, Saioa Garitano, Lore Askasibar, Nerea Mendizabal, Amaia Ortiz de Urbina, Amaia Arrieta eta Ana Sebal.

# Martin Egaña hirugarren AX Kopako Espainiako Txapelketan




Albaceten podiumaren goreneko mailara igotzea lortu zuen Egañak.

**Martin Egaña gidariak "Copa AX" Txapelketako hirugarren postua eskuratu du aurreko igandean Jerezeko proba irabazi ondoren.**

Bergararrak denboraldiko bere laugarren garaipena lortu zuen (aurretik Albacete, Alcañiz, Jarama eta Jerezen nagusitu zen) eta oso pozik azaldu da egindako denboraldiarekin; *"8 karreretatik 4 irabazi ditut eta txapelketa eskura izan dut, baina beste karreretan izandako arazo batzuengatik ez da posible izan".*

Martinek 170 puntu lortu ditu eta bere aurretik, Valles txapelduna (190 puntu) eta Mostajo legazpiarra (180) sailkatu dira. Igandean 8. postuan heldu zen Juan Antonio Martinen anaia 10. postuan geratu da sailkapen orokorrean eta datorren urtean bertan jarraituko du.

Martinek, berriz, hurrengo denboraldian "Supercopa ZX" korritzeko asmoa dauka Pablo Irizar, Iban Rodriguez eta Jon Casais ZXeko txapelketa irabazi duen oñatiarrarekin batera eta "Desguaces Latorre" patrozinadorearekin. *"Ikusi egin behar. Posible bada, saltoa emango dut eta bestela AX Kopan jarraituko dut".* Pablo Irizar 6. tokian geratu da aurten "Supercopa ZX"en. Denboraldi hasierako arazoak gainditu ondoren, Irizarrek denboraldi amaiera txukuna burutu du eta igandean, Jerezen bertan, azken proban, 2. izan zen Jon Casais txapeldunaren aurretik.

**Denboraldi honetan, korritu dituen 8 karreretatik 4 irabazi ditu Martin Egañak**

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41




DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente

# LABEGARAIETAKO futbito txapelketa

## Lehen maila

### A multzoa

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | G. Alde | G. Aurk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Errotagain | 15 | 8 | 7 | 1 | 0 | 61 | 27 |
| 2. Madura | 12 | 8 | 5 | 2 | 1 | 34 | 26 |
| 3. Canalejas | 11 | 8 | 5 | 1 | 2 | 31 | 19 |
| 4. Angiozar | 11 | 8 | 5 | 1 | 2 | 29 | 23 |
| 5. Mongatxurra | 9 | 8 | 4 | 1 | 3 | 37 | 21 |
| 6. OH Zerezos | 8 | 8 | 4 | 0 | 4 | 28 | 36 |
| 7. Uve Bikoitza | 5 | 8 | 2 | 1 | 5 | 26 | 36 |
| 8. Ogizun | 5 | 8 | 2 | 1 | 5 | 24 | 35 |
| 9. Etxagi | 4 | 8 | 2 | 0 | 6 | 38 | 41 |
| 10. Guadalest | 0 | 8 | 0 | 0 | 8 | 12 | 56 |

**emaitzak**

Canalejas-Mongatx. ..... 4-2

Ogizun-Errotagain ....... 2-7

### B multzoa

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | G. Alde | G. Aurk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Kabia | 10 | 8 | 4 | 2 | 2 | 42 | 17 |
| 2. Ozaeta | 10 | 8 | 4 | 2 | 2 | 29 | 16 |
| 3. Arloteak | 10 | 8 | 5 | 0 | 3 | 28 | 17 |
| 4. Bildurbarek | 10 | 8 | 5 | 0 | 3 | 25 | 22 |
| 5. Usoa | 8 | 8 | 3 | 2 | 3 | 24 | 21 |
| 6. Ufala | 8 | 8 | 3 | 2 | 3 | 21 | 22 |
| 7. Pagomendi | 8 | 8 | 4 | 0 | 4 | 25 | 32 |
| 8. Kayak Os Jard. | 8 | 8 | 3 | 2 | 3 | 21 | 33 |
| 9. Arkupe | 6 | 8 | 3 | 0 | 5 | 24 | 44 |
| 10. Revienta | 2 | 8 | 1 | 0 | 7 | 11 | 26 |

Revienta-Arloteak ........ 1-8

Bildurb.-Pagomendi ..... 2-3

Revienta-Ufala ............. 2-3

## Bigarren maila

### C multzoa

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | G. Alde | G. Aurk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Nahikari Hooll. | 12 | 7 | 6 | 0 | 1 | 16 | 8 |
| 2. Kriterium | 11 | 8 | 5 | 1 | 2 | 24 | 14 |
| 3. A Ze Flaxa | 10 | 7 | 5 | 1 | 1 | 35 | 15 |
| 4. Krai | 8 | 7 | 3 | 2 | 2 | 15 | 14 |
| 5. Txipiron | 6 | 7 | 2 | 2 | 3 | 14 | 14 |
| 6. Nekrofilikos | 6 | 7 | 2 | 2 | 3 | 16 | 26 |
| 7. Const. Bergara | 5 | 7 | 2 | 1 | 4 | 17 | 24 |
| 8. Paok San Juan | 3 | 7 | 2 | 1 | 4 | 15 | 30 |
| 9. Kriston Potruak | 0 | 7 | 0 | 0 | 7 | 0 | 7 |

Txipiron-Kriterium ....... 3-1

### D multzoa

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | G. Alde | G. Aurk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Etxenagusia | 16 | 8 | 8 | 0 | 0 | 74 | 12 |
| 2. Amozkibar | 10 | 8 | 5 | 0 | 3 | 23 | 21 |
| 3. La Juve | 9 | 8 | 4 | 1 | 3 | 31 | 28 |
| 4. EH Biterrak | 9 | 8 | 4 | 1 | 3 | 19 | 27 |
| 5. Shaktale | 7 | 8 | 3 | 1 | 4 | 32 | 33 |
| 6. Igandekoak | 7 | 8 | 3 | 1 | 4 | 26 | 30 |
| 7. Labegaraieta | 7 | 8 | 3 | 1 | 4 | 23 | 32 |
| 8. Aldoka Maldoka | 5 | 8 | 2 | 1 | 5 | 19 | 35 |
| 9. Los Txupeta | 2 | 8 | 1 | 0 | 7 | 23 | 52 |

Labegar.-EH Biterrak ... 0-1

Igandekoak-Los Txup. . 6-4

Shaktale-Aldoka ........... 6-3

Etxenagusia-La juve .... 8-1

### E multzoa

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | G. Alde | G. Aurk. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Soropotroak | 13 | 7 | 6 | 1 | 0 | 40 | 13 |
| 2. Hartu Zamak | 10 | 7 | 5 | 0 | 2 | 39 | 15 |
| 3. Eri | 10 | 7 | 5 | 0 | 2 | 27 | 21 |
| 4. Ezinleike | 8 | 7 | 4 | 0 | 3 | 32 | 26 |
| 5. Pikapiedras | 8 | 8 | 3 | 2 | 3 | 21 | 26 |
| 6. Ari Ari | 6 | 7 | 3 | 0 | 4 | 33 | 29 |
| 7. Kirolzaleak | 6 | 7 | 3 | 0 | 4 | 22 | 34 |
| 8. Patxaran Team | 2 | 7 | 1 | 0 | 6 | 15 | 38 |
| 9. Pata Negra | 1 | 7 | 0 | 1 | 6 | 14 | 41 |

Pata Negra-Ari Ari ........ 4-10

Kirolz.-Pata Negra ........ 9-2

## partiduak

**LARUNBATA**

**Barruan**

9.00: Soropotroak-Pata Negra **(Hartu Zamak)**

10.00: Eri-Hartu Zamak **(Guadalest)**

11.00: Madura-Guadalest **(Eri)**

**IGANDEA**

**Barruan**

9.00: Kabia-Revienta **(Bildurbarek OPEL/LAM)**

10.00: Kayak-Bildurbarek **(Usoa)**

11.00: Usoa-Ozaeta **(OH Zerezos)**

12.00: OH Zerezos-Errotagain **(Uve Bikoitza)**

13.00: Uve Bikoitza-Canalejas **(Errotagain)**

16.00: Arloteak-Pagomendi **(Etxagi)**

17.00: Ogizun-Etxagi **(Ufala)**

18.00: Ufala-Arkupe **(Angiozar)**

19.00: Angiozar-Mongatxurra **(Arkupe)**

**Kanpoan**

9.00: Nekrofilikos-Txipiron **(Ezinleike)**

10.00: Kirolzaleak-Ezinleike **(Krai)**

11.00: Const. Bergara-Krai **(Ari Ari)**

12.00: Patxaran Team-Ari Ari **(Nahikari Hooligans)**

13.00: Paok San Juan-Nahikari **(Patxaran Team)**

**OHARRA:**
**Parentesi artean partiduak arbitratu behar dituztenak**



# *Mariaren Lagundiko boleibolistak*



Erretratuan daren zazpi neskak, 1964an "sector norte"ko subkanpeoiak izen zien Sorian.

Gañera, bik pe, Gipuzkuako selekziñuakin jokatu zeben eta honi eskerrak, España guztia ezautzeko aukeria euki zeben. Gaur egunian herrixan boleibol ekiporik ez daonez, baten batzuk eztabe sinistu be eingo, neskak bergararrak diela.

Ba, bai!! Baietz!!, 60ko hamarkadako neska bergararrak kirolzale sutsuak izan ziela!! (gaur egun be badare saskibaloian, igeriketan, eskubaloian edota futbolian), eta Bergaran oso errotuta ez daon kirol batian, boleibolian, goi mailara heltzia lortu zeben gañera.

**Zutik ezkerretik eskumara:** Kontxi Korkostegi, Arantxa Laskurain, Maria Isabel Larrañaga, Mertxe (Zumarrakua) eta Pili Fernandez.

**Belauniko ezkerrian:** Maria Luisa Larrañaga.

**Belauniko eskuman:** Pili Arin.

*Felipe Iñarra*




GABON HAUETAN ERE...

jolas



Zure Opari Denda Bergara

Barrenkale, 27

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ertz

**Boni Laskurain, 4 behea** **Tfnoa: 76 51 71**

- Markoak
- Koadroak
- Ispiluak
- Laminak
- Argazki euskarriak




GIMNASIOA

B • O • L • U

Aranerreka, 9 behea ☎ 76 51 20

SALSA

SANBA

MERENGE

AFRO-KUBAR

**IKASTARO TRINKOAK.**

**ABENDUAREN 12tik 16ra.**

**Gabonak zoriontzeaz gain, Olentzeroren opariak aurreratu egiten ditugu.**
**Abendu eta urtarrilean zehar... MATRIKULA DOHAINIK!! eta**
**bi pertsonarentzako ASTEBETEKO EGONALDIA KANARIETAN**
**bost izarretako hotelean!!**

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)





AENOR
Produktu Zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR

Sukalderako altzariak

**Sukalde zoragarriak!**